

EUSKADIKO  
ENOGASTRONOMIA  
MUSEO ETA  
GUNEEN SAREA



EUSKADI  
gastronomika

EUSKADI  
BASQUE COUNTRY

RED DE  
MUSEOS Y CENTROS  
ENOGASTRONÓMICOS  
DE EUSKADI

Prentsa Txostena / Dossier de Prensa  
#museosenogastro


## Sagardoetxea Sagardoaren Museoa (Astigarraga)

Sagarra eta sagardoaren kulturaren barneratzeko hiru gune dituen museoa.

- Sagastia: sagarraren kultura modu pedagogiko eta dinamiko batean ezagutzeko aukera ematen du. Urte sasoi bakoitzean ekintza ezberdinak egiten dira.
- Museo gunea: sagardoaren historia, kultura, errituak eta ohiturak eta elaborazio prozesua ezagutzeko gunea.
- Dastalekua: sagardoa txotx-etik eta beste produktu batzuk dastatzeko gunea: edalontzia hartzeko modua, ikusmen azterketa, kolore ezberdinen esanahiak eta zapore ezberdinen bereizketa.

Esperientziak:

- **Sagardoetxeako bisita:** Sagardoetxea, euskaldunen identitate eta ohituren zeinua den sagardoaren kulturaz gozatzeko gunea da.
- **Sagardoetxeako bisita eta bazkaria/afaria sagardotegian:** Sagardoetxeako bisita eta bazkaria afora sagardotegian Sagardoaren kulturaren barneratzeko aukera paregabea izango duzu. Sagardoetxeako bisitaren ostean sagardotegian bazkaldu edo afalduaz.
- **Sagardoa eta itsasoa:** Bailearen arrantzaren abenturak gogora ekarriko dituzu eta itsasoak sagardoarekin duen lotura ezagutuko dituzu museoak bisitatuaz, itsasoan ibiliz eta sagardotegian bazkalduaz. Donostiako edo Pasaiaiko badia zoragarriak zain dituzu.
- **Sagardoa eta gazta:** Idiazabalgo gazta eta sagardoaren jatorria eta elaborazio prozesua ezagutzeaz gain, produktu gastronomiko hauen dastaketa egiteko aukera izango duzu museo, gaztandegi eta sagardotegietan.
- **Probaketak, sagardotegietako bisita gidatuak:** Sagardogilea beraren eskutik dastaketa gidatu bat egingo duzu ontze prozesu ezberdinetan dauden sagardoak txotx-etik dastatu eta beren arteko ezberdintasunak ezagutzeko.
- **Santiagomendiko Sagardo Bidea:** 3 orduetan eta Santiagomendiko puntu esanguratsuenetan zehar oinez egiteko ibilbidea. 8 geldialdi tematikoz osatua dago eta ibilbidean zehar sagardoaren kultura, bertako baserrien historia, bertako bizilagunen bizimodua, etab. ezagutuko dituzu.





**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



TXA  
KO  
LI

